

HERRIKO MUSIKA BANDAREKIN

gure abestiak dantzatzera!



KAIXO POLITA!

Eneko izena nuen "Ene Kantak" proiektu eder eta arrakastatsuan. Beste kide batekin batera, orain 14 urte sortu nuen euskara bultzatzeko ideia zoragarri hura. Irakasleak gara; eta euskaldunak. Horiek dira gure sustraiak, gure arima; gure pasioa. Euskara, kale eta txoko guztietan zabaldu, hizkuntza eskoletatik atera eta alaitasuna eta bizipoza hedatzea izan da beti gure helburu bakarra. Emanaldi asko egin izan ditugu urte hauetan guztietan, irria eta dantza Euskal Herriko txokoetan banatuz. Navarra Arena, Bec, Anoeta, Campos Eliseos, Victoria Eugenia, Faltzes, Mendizorrotza, Arriaga, Euskalduna, Principal... milaka ikusle ta milioika irrifar dastatu ditugu abestien artean familiekin batera



EITBn ere, urteak eman genituen eguneroko programa batean maitasuna eta bizipoza zabaltzen. Abesti ederrak egin izan ditugu: "Polonesa", "Ausartak", "Alemana", "Txanogorritxo" edo "Hiru txerrikumeak" bezalako abestiak, nork ez ditu ezagutzen? Orain, hemendik aurrera, bide ezberdinak jorratuko ditugu eta lehen "Eneko" eta "Nerea" ginenak, Ene Kantak albo batean utzita, abentura berri batean murgildu gara, "Gora musika" proiektuan, hain zuzen ere. Txiki guztiek ezagutzen dituzten gure betiko abestiak, sortutako abesti berrieekin batera, dantzatuko ditugu hemendik aurrera abentura berri batean.



HELBURUA



Herriko musika banda, txikiengana hurbildu nahi dugu, jaietatik eta data berezi horietatik kanpo; beste egoera edo kontestu batean herri musika banda ezagutzeko. Bestalde, abestien artean kontatuko den ipuinaren helburua: norberak bere gorputza onartzea izango da. Haiek eskainitako kantekin gozatzuz joango gara emanaldi osoan zehar eta gainera, erakutsiko diegu familiei, norberak bere gorputza den bezalako maitatu behar duela.



SINOPSISIA

Sorgin bat eta erraldoi bat ogro batekin geratuak dira jolasteko. Bidean, euren gorputz eta arrokekin barre egiten duten hainbat pertsonaia ezagutuko dituzte eta ondorioz, beren gorputzak zalantzan jartzen dituzte. Hortaz, kritikak jasotzen dituzten heinean, magiaren bitartez haien gorputza aldatzen dute, gaur egungo kanonetan oinarrituz. Ostean, guztiz aldatuta iristen dira ogroa ezagutzera. Berak ez ditu ezagutzen, haserretu egiten da eta haiekin jolastu nahi ez, eta alde egiten du. Berraztertzen dute egoera eta magiaren bidez, lehen zeuden modura itzultzen dira. Orain, ogroa pozik dago bere lagunak ezagutzen dituelako eta elkarrekin jolasten dira.



GURE PASAHITZAK:

pasioa, ilusioa, lana eta euskara

KONTRATAZIOA: GARIKOITZ

☎ 608 206 949

✉ goramusika1@gmail.com

📷 [@goramusika](https://www.instagram.com/goramusika)

Gora euskara!